

HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

IRAKASLEA: Igor Elortza

DATA: 2020ko otsailaren 5etik otsailaren 29ra

AZALPENA:

Otsailean zehar hiru adierazpide landu genituen: bertsogintza, antzerki gidoigintza eta marka komunikazio. Hiru kasuetan antzeko metodologia jarraitu genuen: asteazkenetan saio teorikoak egin genituen, eta larunbatetan ariketak egin eta taldean gogoetatu.

Helburua adierazpide bakoitzaren oinarriak lantzea ez ezik, haien arteko antzekotasunak, ezberdintasunak eta batzuetatik besteetarako balizko ikasbideak ateratzea izan zen.

AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

1. **Saioa**
Bertsogintza I
2. **Saioa**
Bertsogintza II
3. **Saioa**
Antzerki Gidoigintza I
4. **Saioa**
Antzerki Gidoigintza II
5. **Saioa**
Marka Komunikazioa eta Publizitatea I
6. **Saioa**
Marka Komunikazioa eta Publizitatea II
7. **Saioa**
Publizitate Kanpaina ideiatu Hitzaren Eskolarentzat
8. **Saioa**
Publizitate Kanpaina ekoitzi Hitzaren Eskolarentzat
+ Saio Irekia: Kantuari Hitza Emateaz (Josu Zabala)

1. **SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Bertsogintza I

Bertsogintzaren oinarrizko sorbideak (doinua, neurria eta errima) landu genituen, maila teorikoan, saio honetan.

Sorbide horiek bertsogintzaren beraren ikuspegitik ez ezik, bestelako jardun batzuen ikuspegitik izan ditzaketen antzekotasunak, aukerak, balioa izan genituen gogoetagai.

Ondokoak izan ziren langai nagusi:

- Hoskidetasuna eta harmonia musikala; hoskidetasuna eta memoria.
- Errima, ausa eta edukia; errima, hizkera-tonua eta sintaxia.
- Neurria eta erritmoa; neurria, sintaxia eta kontakera.
- Doinutegia, erritmoa, harmonia; doinuaren eragina testuan; doinua eta ahotsa.
- Bat-batekotasuna, jendurrekotasuna, gorputza; bat-batekotasuna eta sorkidetzak.

Saioan zehar hainbat material erabili genuen: bideoak, audioak, testuak,...

Material horietan bertsoak ez ezik, kantak, idatzizko iritzi zutabeak, ahozko diskurtsoak, slam poesia saioak eta abar partekatu genituen.

Azkenik, bigarren saiorako ariketa bat edo beste aurrez lantzeko ariketak proposatu zitzaizkien taldekideei.

2. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Bertsogintza II

Bigarren saioa praktikoa izan zen, bertsogintzaren sorbideetatik bestelako jardunetarako aukerak esperimentatuz eta taldean gogoetatuz:

- ORA saileko dozena bana hitzeko errimategia osatzea; eta hitz horien hoskidetasun, eduki eta tonuari buruz.
- “Azken urteetan bizi izan zaren etxea utzi berri duzu” gaia emanda lau-bost lerroko kontakizuna idaztea eta ahoz gora irakurtzea; lehenik esaldi bakarrean, juntagailu eta menpeko esaldiekin, ondoren, ahalik eta puntu gehien jarriz, eta, azkenik, ahoz gora irakurtzeko bertsioan nork bereari egokien zeritzon idazkeran.
- 1993ko Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko finaleko lau oinak emanda, lau esaldiko istorioak osatzen, ahoz, bat-batean.
- Plazako bertso saio bateko gaiak emanda, binaka txanda-txandan ordenagailutik elkarrizketak osatzea gainerakook pantailan aldi berean irakurtzen genituen bitartean.
- Egunkariko berri bat emanda, minutu batean paperean eskema bat idatzi eta gogoeta bat egitea, ahoz, taldearen aurrean zutik.

Talde hausnarketa batekin amaitu genuen saioa, bertsogintzaren sorbideek bestelako adierazpideetan izan dezaketen erabilgarritasunari buruz, eta, baita bertsogintzaren berrikuntzari begira sorbide horien muga, berritze-aukera eta lanketari buruz era.

3. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Antzerki Gidoigintza I

Antzerki gidoigintzaren oinarriko osagaiak (trama, pertsonaiak eta ekintza) landu genituen, maila teorikoan, saio honetan.

Osagai horiek antzerki gidoigintzaren beraren ikuspegitik ez ezik, bestelako jardun batzuen ikuspegitik izan ditzaketen antzekotasunak, aukerak, balioa izan genituen gogoetagai.

Ondokoak izan ziren langai nagusi:

- Trama, istorioaren ordena eta logika, zentzua eta balioa.
- Gatazkak, istorioa eta ekintzak; barne-, kanpo- eta pertsonaia arteko gatazkak.
- Gertakariak, ekintzen bidez kontatzea; gertakari erabakiorra, biraketak, klimaxa,....
- Pertsonaiak, nortasun ezaugarriak, jokabideak; helburuak, estrategiak, rola...
- Pertsonaiak eta gatazkak: antagonismoak, auzi dramatikoak, eraldaketak...
- Pertsonaiak eta ekintza: hizkera dramatikoak, leku-denbora, ahozkoasuna, emozioak,

Saioan zehar hainbat material erabili genuen: bideoak, audioak, testuak,...

Material horietan antzezlanak ez ezik, sinopsi testuak, bat-bateko bakarkako bertso narrazioak, filmetako pertsonaien robot-erretratuak, telesailen elkarriketak, idatzizko ipuinak eta abar partekatu genituen.

Azkenik, bigarren saiorako ariketa bat edo beste aurrez lantzeko ariketak proposatu zitzaizkien taldekideei.

4. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Antzerki Gidoigintza II

Bigarren saioa praktikoa izan zen, antzerki gidoigintzaren osagaietatik bestelako jardunetarako aukerak esperimentatuz eta taldean gogoetatuz:

- Euskarazko sei antzezlanen sinopsiak taldean aztertu.
- Euskarazko lau film ezagunetako pertsonaia nagusiak taldean aztertu.
- Euskarazko ipuin labur bat antzezlan bateko elkarrizketa bihurtzeko baliagarritasuna aztertu.
- Telesail amerikar bateko elkarrizketa-eszena taldean komentatu, pertsonaia gaiztoez gogoetatzeko.
- Antzezlan baterako sinopsia eta protagonista(k) proposamen bana idaztea: protagonista, gertakari erabakiorra, gatazkak(k),...; nortasuna, helburua, ezaugarriak,...
- Taldeka, proposatutako sinopsien eta protagonisten artean hiru aukeratuta, antzezlanaren trama egituratzea: gertakarien logika, pertsonaien eraldaketa, biraketak, askaera,...
- Pertsonaia gaizto baten baitatik monologoa idatzi, 2019ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalurrekoetako hamarreko nagusiko gaietatik.

Talde hausnarketa batekin amaitu genuen saioa, antzerki gidoigintzaren osagaiak bestelako adierazpideekin izan dezaketen antzekotasun, ezberdintasun eta erabilgarritasunari buruz.

5. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Marka Komunikazioa eta Publizitatea I

Marka komunikazioaren eta publizitatearen oinarriak (estrategiarako metodologiak eta kreatibitateko teknikak) landu genituen, maila teorikoan, saio honetan.

Metodologia eta teknika horiek marka komunikazioaren eta publizitatearen beraren ikuspegitik ez ezik, bestelako jardun batzuen ikuspegitik izan ditzaketan antzekotasunak, aukerak, balioa izan genituen gogoetagai.

Ondokoak izan ziren langai nagusi:

- Erredakzio publizitarioaren oinarriak: zer, nori, zer argudiorekin esan; nola, zer tonutan esan, zer euskarri-kanal-ekintzaren bidez,...
- Izengintzaren (naming) estrategiak eta arauak: marka, produktu edo egitasmo bat posizionatzeko ideia zehaztea,...; bereizgarritasuna, deigarritasuna, esangarritasuna, legezketasuna,
- Marka kontakizuna: mitoak, errituak, metaforak,...; arketipoak,...
- Publizitate kanpainen estrategiak eta metodologiak: helburuak, xede-taldeak, bitartekoaren plangintza,...; briefinga, ideia gakoa, ideiaren garapena(k),...
- Publizitate kanpainen sorkuntza: xede-taldea, onura, egiaztabideak,...; hitz gakoa, ideia orria, irudi nagusia, eslogana,...

Saioan zehar hainbat material erabili genuen: bideoak, audioak, testuak,...

Material horietan marka edukiak eta publizitate piezak ez ezik, liburuen bideo-iragarkiak, politikarien arketipoak, telebista-saio eta antzezlanen izenburuak eta abar partekatu genituen.

Azkenik, bigarren saiorako ariketa bat edo beste aurrez lantzeko ariketak proposatu zitzaizkien taldekideei.

6. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Marka Komunikazioa eta Publizitatea II

Bigarren saioa praktikoa izan zen, marka komunikazioaren eta publizitatearen oinarrietatik bestelako jardunetarako aukerak esperimentatuz eta taldean gogoetatuz:

- Publizitate piezak taldean aztertu: xede-taldeak, onurak, ideia nagusiak,...
- Sei marka-izen taldean aztertu: posizionamendua, esan-indarra, sorkuntza,....
- Bost euskal politikariren arketipoak aztertu: bereizgarritasunak, argi-ilunak, bilakaerak,....
- Hitzaren Eskolarentzat izen eta kontakizun proposamen bana lantzea: posizionamendua, ideia gakoa, arketipoa(k),...
- Talde osoan eztabaidatzea Hitzaren Eskolarentzat proposaturiko izenak eta kontakizun aukerak.

Talde hausnarketa batekin amaitu genuen saioa, marka komunikazioaren eta publizitatearen oinarriek bestelako adierazpideekin izan ditzaketen antzekotasun, ezberdintasun eta erabilgarritasunari buruz.

Azkenik, Hitzaren Eskola azpeitiarren artean sustatzeko publizitate kanpaina bat ideiatzeko argibide estrategikoak (briefing) aztertu genituen:

- Iragarlea, egitasmoa eta marka.
- Xede-taldea(k).
- Kanpainaren helburua.
- Egitasmoaren sorrera, bilakaera eta egoera.
- Egitasmoak xede-taldeei eskaintzeko onurak.
- Onuren egiaztabideak.
- Derrigorrez txertatu beharreko osagaiak.
- Aurrekontua eta egutegia.

7. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Publizitate Kanpaina ‘Hitzaren Eskola’ I

Azken astean publizitate kanpaina bat ideiatu eta gauzatu genuen Hitzaren Eskola azpeitiarren artean sustatzeko.

Argibide-orriaren laburpenean honela jaso genuen:

“Hitzaren Eskola azpeitiarrei ezagutzera emateko kanpaina ideiatu behar dugu. Helburu nagusia da hitza lantzeko aukera eta lantzearen garrantzia helaraztea, eta horretarako herrian nazio mailako egitasmo bat edukitzeaz harro sentiaraztea.

Hitzaren Eskola osatzen dugunok gara sinesgarritasun argudio nagusia: irakasle zein ikasle moduan jardun dugun diziplina ugaritako sortzaileak eta eragileak.

Astebeteko epean lortu behar dugu publizitate piezak gauzatzea eta kaleratzea; eta horretarako Dinamoko lan-taldearen laguntza eta euren bitartekoak erabiliko ditugu”.

Taldeka banatuta lau ideia gako ezberdin proposatu genituen:

- “Hartu armak” kale-ekintza, Azpeitiako plazan diskoak, liburuak, hiztegiak... entregatzeko mahaia jarritz, kaputxekin eta abar.
- “Dastatu hitza” ekintza Azpeitiko San Agustin kulturgunean, kafearekin batera idatzizko mezuak banatuz.
- “Hitzez haurdun” zurrumurru kanpaina, azpeitiarren artean zabalduz Hitzaren Eskolako hainbat kide haurdun geratu direla ikasturtean zehar, eta, ondoren, denak sabel handiarekin azaltzen diren argazkiekin haurdunaldi hori datozen hilabeteetan erdituko dituzten disko, liburu, antzezlan eta abarren berri ematearekin lotuz.
- “Gihartu hitza” kanpaina, azpeitiarren herri-kirolzaletasunarekin loturik, kultur adierazpideak herri-kirolekin parekatuz eta parekotasun hori eroanez publizitate piezetara: diskogintza-trontzagintza, liburugintza-sega eta abar.

Azken ideia hori hautatu genuen, “Gihartu hitza”, eta azken egunean piezak gauzatzeko ekoizpen plangintza eta ardura banaketa egin genuen.

8. SAIOA (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Publizitate Kanpaina ‘Hitzaren Eskola’ II

Azken egunean “Gihartu hitza” kanpainaren ekoizpena egin genuen, eskolakideak izanik kanpainaren protagonista, argazkietarako modelo lanetan eta irrati-kuinatarako esatari lanetan:

- Argazki saioa, Azpeitiko argazkilari elkarteko kide baten laguntzaz.
- Kartelen diseinu grafikoa Dinamoko kideen laguntzaz.
- Kuinen grabaketa Dinamoko bitartekoak erabiliz.
- Kartelen inprimatzea Azpeitiko kopistegi batean.

Hurrengo astean zehar ezarri ziren kartelak San Agustin Kulturgunean, eta kuinak ere bertan eman ziren entzutera.

Kantuari Hitza Emateaz (saio irekia)

Hilabeteko azken ekintza moduan, Josu Zabala kantagilea izan genuen Dinamoan, kantagintza herrikoia mundu mailako bilakaeraren azterketa luzea eta sakona eginez, eta argazki global eta historiko horretan euskal kantagintzaren gaineko galdegaiak mahaigaineratuz.



BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

A large, empty rectangular box with a thin black border, occupying the bottom half of the page. It is intended for a bibliography and sources section.

